

MOSEN BERNAT DETXEPARE

Zenon Uriguen
pasiotarra

LINGVAE VASCONVM PRIMITIAE
per Dominum Bernardum Dechepare
Rectorem sancti michaelis veteris.



“LINGVAE VASCONVM PRIMITIAE”

Detxeparek euskeraz egindako poesia bilduma xelebrea da, Burdeos urian irarria 1545 urtean, 52 orrialde ditu. Zorioneko liburua Paris´en, Biblioteka Nacionalen gordeta dago.

HISTORIA BARRIA. BERE FAMILIA

Alegiñak egin ditugu Detxepareren gusasoak eta familia ezagutzeko. Baña alperrik. Bibliako Melkisedek datorkigu burura. Liburu santuan ez da aipatzen aren aitarik ez amarik, ez jatorririk, jaiotzarik, eriotzarik.

- A) **Baña, egiaz, Detxepareren familia,** jatorriz noblea ta izen onekoa da.
- B) **Bere jaiotza.** Bere jaiotzaren urtea 1470-1480 bitartean izan zan San Juan-Pied-de-Port erriaren lurraldetan.
- D) **Jaunaren deia.** Gazte zintzo eta jator onek barne muiñetan bizi-bizi sentitzen dau Jaunaren deia apaiz izateko.

- E) **Trentoko Eliz batzar nagusia. (1545-1563)** Eliz Batzar onetan agintzen da apaiz izateko Seminario baten egin bear dirala ikasteak: ezkuntza eta erakuntza berezia apaiz izateko.
- F) **Zer egin?** Orduko urteetan ez dago seminariarik. Detxeparek bere egitasmoa zoli ta zintzo beteko dau. Baionako gotzaitegira joan eta emongo dautse bera ta bere lagunei abade on eta jakitun bat eliz ikasteak, latin eta biziera santua bizitzeko.
- G) **Abade.** 25 urtekin abade izango da.

“EUSKARA, JALGI ADI PLAZARA”



Ez dago iñun euskerazko libururik eta berak egingo dau lenengoa, euskerari bizi barria, arnasa bizigarria emoteko oiua ta aupada xelebrea “Euskara, jalgi adi plazara”. Erri giroan bertsolari moduan. Bere buru argitik aterako ditu mota guztietako asmakizunak, erriko gora bera eta larrialdi berebizikoak. Detxeparen kristau fedea bizia da bere izaeran ta bizieran. **“Omnia vincit amor”** **“Maitasunak dana garaitzen dau”**. Detxepare Saint Mitxel le Vieux errian parroko izango da. Bere

lenengo ardura da erritar guztiak, batez be, gaxoak ezagutu ta euren serbitzari izan. Guzurrez salatua eta espetxeratua izan zan. Zoritxar onetan zer esan? **“Maitasunak dana garaitzen dau”**. Geroago Bikario General ta Arzipreste izango da bere ekintza goragarriakaitik Saint Jeanen. Eta gero Parroko San Juan-Pied-de-Port errian bere azkenengo urteetan **“Mendiak mendiaren bearrik ez, baña gizonak gizonarena bai”**.